KIMIKA EZ-ORGANIKOA I

2019-2020 ikasturtea

IRAKASLEA: Eider San Sebastian

Lehenengo gaia: FORMULAZIO ETA IZENDAPEN EZORGANIKOAK

Hainbat izendapen mota daude konposatuak izendatzeko:

- Konposizio edo estekiometrikoa.
- Ordezkapeneko izendapena.
- Adiziozko izendapena.
- Hidrogeno izendapena.
- Izendapena Ur disoluzioan.
- Ohizkoa edo tradizionala.

Zein izendapen mota erabili behar da (IUPAC) sustantzia mota bakoitzarentzat?

	IUPAC-IZEN SISTEMATIKOAK						BESTEAK	
	Ordezkapen izena	Hidrogeno Izena	Adizio izena	KONPOSIZIO EDO ESTEKIOMETRIKO			Onartua	Ur disoluzioan
				Karga Z.	Ox. Z.	Aurr. Biderk.		
SUSTANTZIA ELEMENTALAK								
Mugatuak	-	-	-	-	-	ok	Arrunta	-
Mugagabeak	-	-	-	-	-	-	Element.	-
KONPOSATU BITARRAK								
Hidrogenoa								
1-17 taldekoak	13-17 taldeak	-	-	Metal.	Metal.	ok	Amoniako	16-17 taldeak
Oxigenoa								
1-16 taldeko Oxidoak	-	-	-	Metal.	ok	ok	Ura	-
17. taldea Ox. Haluorak	-	-	-	-	-	ok	-	-
Peroxidoak	-	-	-	ok	ok	ok	-	-
Superoxidoak	-	-	-	ok	ok	ok	-	-
Ozonidoak	-	-	-	ok	ok	ok	-	-
Gatzak								
Gatz neutroak	-	-	-	ok	ok	ok	-	-
KONPOSATU ANIZKOITZAK								
Hidroxidoak	-	-	-	ok	ok	ok	-	-
Oxido Mixtoak	-	-	-	ok	ok	ok	-	-
Oxoazidoak	-	ok	ok	-	-	-	Ohizkoa	-
Oxoazidoen eratorriak	-	-	ok	-	-	-	Ohizkoa	-
Gatz neutroak	-	-					-	-
Gatz azidoak	-						-	-
Gatz anizkoitzak	-	-	-	ok	ok	ok	-	-

ok	Kasu guztitan erabilia
Textu bat	Textuak dion kasutan erabilia bakarrik.
	Kolore honetan adierazitako izendapen moten konbinazio bat erabili ohi da.

Hidrogenoaren konposatu bitarrak

- Hidruro metalikoak. Adib: NaH *Sodio Hidruroa*
- Hidruro ez-metalikoak. Adib: NH_3 *Nitrogeno Hidruroa, Amoniakoa, Azanoa*
- Hidruro halogenuroak/Hidrazidoak (16 + 17 taldeak): HCl *Hidrogeno kloruroa, azido klorhidrikoa, kloranoa*

Oxigenoaren konposatu bitarrak

- Oxidoak :
    - O^{2-} espeziea. Adib: MgO *Magnesio oxidoa*.
- Oxigenoaren Haluroak:
    - O^{2+} eta X^{1-}. Adib: OF_2 *Oxigeno diflurorurua*.
- Peroxidoak:
    - O^{1-} espeziea. Adib: MgO_2 *Magnesio peroxidoa*.
- Hiperoxidoak/Superoxidoak:
    - $O^{0,5-}$ espeziea. Adib: MgO_4 *Magnesio hiperoxidoa*.
- Ozonidoak:
    - $O^{0,33-}$ espeziea. Adib: MgO_6 *Magnesio ozonidoa*.

Gatz binarioak

- Fe_2S_3: *Diburdin trisulfuroa, Burdin(3+) sulfuroa, Burdin(III) sulfuroa*

Anioiak

- Hidruroen eratorriak:
    - NH_2^-: *Azanuro.*
    - GeH_3^-: *Germanuro.*
- Oxoanioiak:
    - SO_4^{2-}: *Tetraoxidosulfato(2-), Tetraoxidosulfato(VI), sulfato anioia.*
- Oxoanioi azidoak:
    - HSO_4^{1-}: *Hidroxidotrioxidosulfato(1-)/(VI), Hidrogenotetraoxidosulfato(1-)/(VI), Hidrogenosulfato anioia.*

Hidroxidoak

- $Pb(OH)_2$: *Berun(II) hidroxidoa, Berun(2+) hidroxidoa*.

Oxido mixtoak

- Pb_3O_4: PbO_2 + 2x PbO *Diberun(2+) berun(4+) oxidoa, Diberun(II) berun(IV) oxidoa, Triberun tetraoxidoa*

Oxoazidoak

- H_2SO_4: *Dihidroxidodioxidosufre, dihidrogeno[(tetraoxidosulfato(VI)/(2-)], azido sulfurikoa.*
- H_2CO_3: *Dihidroxidooxidokarbono, azido karbonikoa*.

Tioazidoak eta peroxoazidoak

Azidoaren -OH talde bat -SH (tiol) edo -O-O-H (peroxido) taldearengatik ordezkatzen da.

$H_2S_2O_3$: *Azido tiosulfurikoa, Dioxidotrioxidosulfurosufre*

H_2SO_5: *Azido peroxosulfurikoa, (dioxidanuro)hidroxidodioxidosufre.*

Gatz neutroak

- $Fe(NO_3)_3$: *Burdin(3+) nitrato, Burdin(3+) trioxidonitrato(1-), Burdin(III) nitrato, Burdin(III) trioxidonitrato(V), Burdin tris(trioxidonitrato)*

Gatz azidoak

- $Fe(HSO_4)_2$: *Burdin(2+) hidrogenotetraoxidosulfato(1-), Burdin(II) hidrogenotetraoxidosulfato(VI), Burdin bis(hidrogenotetraoxidosulfato), Burdin(2+) hidroxidotrioxidosulfato(1-), Burdin(II) hidroxidotrioxidosulfato(VI), Burdin bis(hidroxidotrioxidosulfato), Burdin(2+) hidrogenosulfato(1-), Burdin (II) hidrogenosulfato(VI), Burdin bis(hidrogenosulfato)*

Gatz anizkoitz edo mixtoak

Bi katioiak edo anioiak orden alfabetikoan idazten dira eta elementuaren letraren alfabetikoki formulatu

- $KMgF_3$: *Magnesio potasio fluoruroa, Magnesio potasio trifluoruroa.*
- BaBrCl: *Bario bromuro kloruroa.*

Bigarren gaia: ERREDOX ERREAKZIOAK

Orokortasunak

Beti bi erdierreakzioz osatuta daude:

- Oxidazioa: elementu batek elektroiak galdu eta oxidazio zenbaki altuagoko egoera batera pasatzen da.
- Erredukzioa: elementu batek elektroiak irabazi eta oxidazio zenbaki txikiago bateko egoera batera pasatzen da.

$$Fe + 2HCl \rightarrow FeCl_2 + H_2$$

Espontaneoki gertatzeko, erreakzio osoaren potentziala positiboa izan behar du. Erredukzio potentzialak taulatutako datuak dira.

$$\varepsilon^0_{erreakzioa.} = \varepsilon^0_{erredukzioa} - \varepsilon^0_{oxidazioa}$$

Frost diagramak



- Maldan behera = erredukzio potentzial positiboa (berezkoa)
- Maldan gora = erredukzio potentzial negatiboa (ez espontaneoa)
- Erdierreakzioen izaera identifikatzeko balio du.

Latimer diagramak

Erredukzio potentzialen zenbakizko balioa ematen digu.



Diagrama honetan agertzen ez diren potentzialak kalkulatzeko:

$$\varepsilon = \frac{n_1 \times \varepsilon_1 + n_2 \times \varepsilon_2}{n_1 + n_2}$$

Desproportzioa eta koporportzioa

- Desproportzioa edo bismutazioa: espezie bat bere buruarekin erreakzionatzea eta bere burua oxidatu eta erreduzitzea aldi berean. Horretarako bere **eskuineko potentziala ezkerrekoa baino handiagoa** izan behar du.

$$H_2O_2(aq) + 2H^+(aq) + 2e^- \rightarrow 2H_2O\,(l) \qquad \varepsilon^\circ = +1.76\ V$$
$$-\,(H_2O_2(aq) \rightarrow O_2 + 2H^+(aq) + 2e^-) \qquad \varepsilon^\circ = +0.70\ V$$
$$2H_2O_2(aq) \rightarrow O_2(g) + 2H_2O(l) \qquad \varepsilon^\circ = +1.06\ V$$
$$\varepsilon^\circ > 0 \rightarrow \Delta G < 0 \rightarrow \text{Berezko erreakzioa}$$

- Koproportzioa: latimer diagrama bereko bi espezien arteko erreakzioa tarteko espezie bat osatzeko. Horretarako bihurtzen diren espeziearen **ezkerreko potentziala eskuinekoa baino handiagoa** izan behar du.

$$ClO_4^- + ClO_2^- \rightarrow 2ClO_3^-$$

Laugarren gaia: EGOERA SOLIDOA

Solidoa: forma eta bolumen konstanteak dauzkan materiaren agregazio-egoera. Atomikoki atomo ioiak edo molekulak atxikituta daude lotura sendoak osatuz

LOTURA SENDOAK ≠ EGONKORRAK: Termodinamikoki diamanteak ez dira egonkorrak baino lotura oso gogorrak dituzte.

Solido motak

- Amorfoak: ez dago ordenik osagaien artean (atomoak, molekulak, ioiak). Isotropikoak (norabide guztietan berdinak)
- Kristalinoak: orden finkoa osagaien artean. Anisotropikoak (norabide guztietan ez dira berdinak)

Solido kristalinoak

- Solido kobalenteak: lotura kobalentez osatutako solidoak. Bi mota.
    - Solido kobalente molekularrak: molekula lotura kobalentez osatutako sarea. Adib: SiO_2. Molekula hauek aislatuta ez dira existitzen.
    - Solido kobalente atomikoa: atomo bakar baten lotura kobalenteen bidez osatutako sarea. Adib: Diamantea ©
- Solido molekularrak: molekulaz osatutako sareak. Molekulak Londonen indarren bidez lotuta daude. Adib: I_2 solidoa.
- Solido metalikoak: atomo metalikoz osatutako solidoak. Lotura indar sendoak orokorrean baina aldakor samarrak metalaren arabera (Hg eta Ga likidoak ingurugiroan)
- Solido ionikoak: elektronegatibotasun desberdintasun handia dela eta anioi eta katioien arteko kate kristalinoa. Ez dute zortzikotearen erregela errespetatu behar. Lotura sendoak.

Solido kristalinoen egituraren deskribapena

Gelaxka unitatea: solidoaren egitura adierazten duen egitura minimoa

Formula Kopurua (Z): gelaxka unitatearen barruan sartzen diren konposatuaren unitateak.

Koordinazio Zenbakia (KZ): atomo batek gertuen eta distantzia berean dauzkan beste atomo kopurua.

Esferen paketatzea

- Paketatze ez-trinkoa:



- Paketatze trinkoa:



Esfera kapak modu desberdinetan akopla daitezke paketatze mota desberdinak sortuaraziz

Paketatze motak

- **Paketatze kubiko sinplea:**



Esferak tangenteak gelaxkaren ertzetan.

Z =1; KZ =6; a =r/2

Paketatze efikazia: %52 (bolumen totaletik esferek betetzen dutena)

- **Paketatze kubikoa gorputzean zentratua:**



Esferak tangenteak gelaxkaren diagonalean

Z =2; KZ =8; a =4r/√3

Paketatze efikazia: %68

- **Paketatze kubikoa aurpegian zentratua / Paketatze kubiko trinkoa:**



Esferak tangenteak aurpegien diagonalean

Z =4; KZ = 12; a =4r/√2

Paketatze efikazia: %74

- **Paketatze hexagonal trinkoa:**



Esferak tangenteak hexagonoaren aurpegien diagonalean

Z =6; KZ =12

Paketatze efikazia: %74

Solidoen dentsitatearen kalkulua

Ariketa hagitz tipikoa

$$Dentsitatea = \frac{m_{gelaxka}}{V_{gelaxka}} = \frac{Z \times PM \times 10^{24}}{a^3 \times Na}$$ Distantziak Åtan jarri → emaitza cm^3tan

Solido ionikoak: Hutsuneak betetzen

Katioiek anioiek utzitako hutsuneak betetzen dituzte.

Hutsune motak:

- Kubikoa: 8 esferen artean sortzen da.
- Oktaedrikoa: 6 esferen artean sortzen da.
- Tetraedrikoa: 4 esferen artean sortzen da.

Erradioen erlazioaren araua

Katioiaren eta anioiaren erradioa egokia izan behar du egituran sartu ahal izateko.

$$\frac{r_{\text{Hutsune tetraedriko}}}{r_{\text{esfera anioi}}} \geq 0{,}225$$

$$\frac{r_{\text{Hutsune oktaedriko}}}{r_{\text{esfera anioi}}} \geq 0{,}414$$

$$\frac{r_{\text{Hutsune kubiko}}}{r_{\text{esfera anioi}}} \geq 0{,}732$$

$r_{anioi}/r_{katioi}=$

- ≥0,255 → Hutsune tetraedrikoa
- ≥0,414 → Hutsune oktaedrikoa
- ≥0,722 → Hutsune kubikoa

Ariketa tipikoa: X katioiak zer hutsune mota beteko du Y anioiarekin?

Hutsuneak beste gelaxkekin ere partekatzen dira.

- Hutsune oktaedriko kopurua =Z
- Hutsune tetraedriko kopurua =2Z

Hutsune oktaedrikoak egitura trinkoen bereizigarri, kubikoak egitura ez-trinkotan.

Erreferentziazko egiturak

Baliogarriak dira solido ioiniko baten propietateak oso hitz gutxitan laburtu ditzazkegulako.

7 erreferentziazko egitura erabiltzen dira:

Egitura Mota	Erreferentzia**	Anioien* Sarea	Katioiez Hutsuneen Okupazioa	K.Z	Z
MX estekiometria					
Zesio kloruro	CsCl	Kubiko simplea	Kubiko guztiak	8:8	1
Sodio kloruro	NaCl	Kubiko trinkoa	Oktaedriko guztiak	6:6	4
Blenda	ZnS	Kubiko trinkoa	1/2 Tetraedriko (txandakatuta)	4:4	4
Wurtzita	ZnS	Hexagonal trinkoa	1/2 Tetraedriko	4:4	6
Nikel arseniuro / Nikelina	NiAs	Hexagonal trinkoa	Oktaedriko guztiak	6:6	6
MX_2 / M_2X estekiometria					
Fluorita	CaF_2	Kubiko trinkoa **(Ca^{2+})**	Tetraedriko guztiak **(F^-)**	8:4	4
Antifluorita	Na_2O	Kubiko trinkoa (O^{2-})	Tetraedriko guztiak (Na^+)	8:4	4

* Fluoritan izan ezik

** Erreferentzia bezala erabiltzen den solido ionikoa.

Bostgarren gaia: METALAK

Metalen propietateak

- Eroale elektriko eta termikoak
- Distiratsuak eta opakoak
- Xaflakorrak eta harikorrak
- Balentzia elektroi gutxikoak
- Elektropositiboak eta erreduktoreak
- Ionizazio potentzial baxua
- Afinitate elektroniko txikia
- Fusio tenperatura aldakorrak dituzte paketatze motaren araberakoa delako.

Alotropoak: metal beraren paketatze mota desberdinak.

Lotura metalikoa

Metalen kasua Balentzia Loturaren Teoriak ez du funtzionatzen. Horrengatik bi teorema asmatu ziren:

Elektroi itsasoaren teoria



Teoria honek ez du azaltzen zergatik Si tenperatura baxutan isolatzailea den eta tenperatura altutan eroalea, hau da erdieroaleak ezin ditu azaldu.

Banden teoria

Teoria garatuena. Orbital molekularren teorian oinarritutakoa.

Orbital molekularrez osatutako bandak sortzen dira. Atomo batek KZ distantzian dauden atomoekin lotura oso sendoak baina distantzia handituz sendotasuna txikitzen doa. Banda energetiko bat sortzen da.



Banda hauek bi zatitan banatuta daude:

- Balentzia banda: balentziako elektroiak biltzen dituen banda.
- Eroaltasun banda: balentzia elektroiak hona jauzi eta eroale izaera ematen duen banda.



Metalen kasuan bi banden arteko energia desberdintasuna 0 da. Erdieroaleek tarte txiki bat dute eta isolatzaileek tarte oso handia.

Erdieroaleen kasuan, berotzerakoan tarte hori txikitu eta eroankortasuna ahalbidetzen da.

Sodioaren kasua:

$1s^2 2s^1 \rightarrow$ 2s banda ez du guztiz betetzen. Eroalea da.

Magnesioaren kasua:

$1s^2 2s^2 \rightarrow$ 2s banda betetzen du baina 2p banda gainezartzen da. Eroalea da.



Erdieroaleak

Erdieroale intrintsekoa: tenperatura handituz eroale bihurtzen dena.

Gehienetan erdieroaleak dopatu egiten dira ezpurutasun batzuk sartuz bi eroale mota sortuz:

- n motakoak: erdieroaleak baino elektroi bat gehiago (elektroi emaileak) daukan ezpurutasunak gehitzen bazaizkio. Adib: SI + As.
- p motakoak: erdieroaleak baino elektroi bat gutxiago (elektroi hartzaileak) daukan ezpurutasuna gehitzen bazaizkio. Adib: SI + B.





Egoera naturala eta lorbidea. Orokortasunak

Metalak orokorrean mineral motan aurkitzen dira baino itsasotan ere disolbatuak ager daitezke. Adib: Na^+

Mineraletik metala lortzeko oxido (MO), haluro (MX) edo sulfuro (MS) erreduzigarri formak lortu behar dira tratamendu kimiko ezberdinen bitartez.

- Metal oxidoentzat:
    - Prozedura termikoa: berotu egiten da O_2-ren presentziarik gabe. Karbonato eta hidroxidoentzat.
    - Tostazioa: berotu O_2-ren presentzian. Sulfuroentzat.

    - Desplazamendua: metal oxido basikoago bat erabiltzen da. Silikatoentzat.
- Metal haluroak itsasotik lortzen dira.
- Metal sulfuroak meategietatik.

Oxido, haluro edo sulfuroen erredukzioa metal purua lortzeko

Ellingham diagrama: tenperaturaren arabera metal oxidoaren $\Delta G_{form.}$ O_2 mol bakoitzeko

Adib: $4/3\ Al + O_2 \rightarrow 2/3\ Al_2O_3$

Pista: Diagraman beherago dagoen lerro batek goikoak erreduzitzeko gai da.

3 modu MO erreduzitzeko:

1. Deskonposizio termikoa: T batetik gora $\Delta G_{form.}$ >0 bada espontaneoki erreduzituko da.
2. Oxidoen erredukzio pirometalurgikoa T altutan eta egoera solidoan:
    - Beste metalak erabiliz.
    - H_2 erabiliz.
    - C-aren lerroak erabiliz.
3. Erredukzio elektrokimikoa edo oxido fundituen elektrolisia: Ellingham diagraman behekaldeko metalentzat. Erreakzioa ez da espontaneoa eta energia asko eman behar zaio. Horrengatik Aluminioa bezalako metalak nahizta oso ugariak izan hagitz garestiak dira.



MX erreduzitzeko bi forma:

- Haluroen erredukzio pirometalurgikoa T altutan eta egoera solidoan:

  Kasu honetan C ezin da erabili Ellingham diagraman oso gora dagoelako. Horren ordez H_2 erabiltzen da.

Erredukzio elektrolitikoa

MS erreduzitzeko bi forma:

- Tostazioa: $2MS + 3O_2 \rightarrow 2MO + 2SO_2\ (g)$
- Sulfuroen erredukzio pirometalurgikoa T altutan eta egoera solidoan: ez H ez C ezin dira erabili oso altu daudelako Ellingham diagraman

$$Sb_2S_3 + 3Fe \rightarrow 3FeS + 2Sb$$

Seigarren gaia: HIDROGENOA

Ezaugarri orokorrak

Ez da ez Alkalinoekin ez Halogenoekin sailkatzen bere propietateak bien artekoak direlako.

	Aldekoa	Kontrakoa
Alkalinoekin	H^+ oxidazioaz Soilik s1e^- du	Ez da metala Urarekin ez du erreakzionatzen
Halogenoekin	Ezmetala da H_2 homodiatomikoa	H^- osatzea ez da erraza Ez da halogenoak bezain erreaktiboa

Unibertsoko elementurik ugariena da. **Lurrean H_2 gutxi** dago, **pixka bat atmosferan eta lurrazpiko biltegietan**.

H_2 disoziatzea oso zaila da, **soilik eguzkitik gertu** eta oso tenperatura altutan aurki daiteke **H atomikoa**.

H_2 molekula

Orokortasunak

- Gasa giro tenperaturan.
- Molekula diatomikoa.
- Kolorgea.
- Dentsitate oso txikia.
- Ia disolbagaitza uretan.
- Apolarra

Indar intermolekularrak

Molekula **oso txiki eta apolarra** izanik soilik **Londonen indarrak** pairatuko ditu eta **oso ahulak** izango dira **molekularen tamaina niminoarengatik**.

Ondorioz, **fusio eta irakite tenperatura oso baxuak** izango ditu.

Indar intramolekularra edo lotura indarra

Lotura kobalente oso sendoa osatzen du **orbital atomikoen gainezarmenaren efikazia oso handia** delako. Disoziaziatzeko erreakzioa oso endotermikoa da ΔH_{298} = 104,2 Kcal/mol

Lotura hain sendoa izanik **ez du erraz erreakzionatuko**.

Hidrogenoaren lorbidea laborategi mailan

- Zn edo F + HCl diluitua
  - $2HCl + Fe \rightarrow FeCl_2\ (aq) + H_2$
- Beste metal batzuekin
  - $CaH_2 + H_2O\ (l) \rightarrow Ca(OH)_2 + 2H_2$
  - $2Al + 2NaOH + 6H_2O\ (l) \rightarrow 2Na[Al(OH)_4] + 3H_2$
- Metal alkalino eta lurralkalinoak + ura

  Erreakzio oso bortitz eta arriskutsuak

  - $2K\ (s) + 2H_2O \rightarrow 2K(OH) + H_2$
  - $Ca(s) + 2H_2O \rightarrow Ca(OH)_2 + H_2$

Hidrogenoaren lorbidea industria mailan

- Uraren erredukzioa kokea erabiliz
  - $H_2O(g) + C \rightarrow H_2 + CO$
- Uraren erredukzioa hidrokarburoekin
  - $CH_4 + H_2O \rightarrow CO + 3H_2$ **Ni, P, T 1200K beharrezkoak**
  - $CO + H_2O\ (g) \rightarrow CO_2 + H_2$ **700K**
- Uraren erredukzioa C grafitoarekin
  - $C(grafito) + H_2O\ (g) \rightarrow CO + H_2$
- Biomasa berotuz
  - $Biomasa + O_2 \rightarrow H_2 + CO$ **800-1000ºC**
- Elektrolisia
  - Uraren elektrolisia
    - $H_2O \rightarrow H_2 + O_2$ **ε^0 = -1,229V**
  - NaCl-ren elektrolisia
    - $2NaCl + 2H_2O(l) \rightarrow 2NaOH + 2H_2 + Cl_2$
- Uraren erredukzioa Fe erabiliz
  - $3Fe + 4H_2O(l) \rightarrow Fe_3O_4 + 4H_2$ **1200ºC (Ellingham diagrama)**

Hidrogenoaren erabilerak

- Amoniakoa lortzeko
  - $3H_2 + N_2 \rightarrow 2NH_3\ (g)$ **T altuak, katalizatzaileak**
- Hidrokarburoak hasetzeko, elikagai industrian
  - $3H_2(g) + CH_2{=}CH_2(g) \rightarrow CH_3{-}CH_3(g)$
- Industrian oxido metalikoen erredukziorako
  - Ikusi BOSTGARREN GAIA
- Oxigeno/Hidrogenozko soldagailutan
  - $2H_2(g) + O_2(g) \rightarrow 2H_2O(l)$

- Fusio nuklearrean
    - $4\,{}^{1}_{1}H \rightarrow {}^{4}_{2}He + 2e^{-} + 2\beta^{-}$
- Hidrogenozko baterietan

Hidrogenozko erregai-bateria





Dihidrogenoaren erreaktibotasuna

Dihidrogenoa ez da oso erreaktiboa. Erreaktiboagoa izan dadin H-H lotura ahuldu behar da. 3 modu daude:

- Txinparta baten bitartez: erreakzio erradikalarioak has ditzazke.

$$H_2 \rightarrow 2H^{\cdot} \qquad \text{Iniciación}$$
$$H_2 + O_2 \rightarrow 2\,HO^{\cdot} \qquad \text{Iniciación}$$
$$H^{\cdot} + O_2 \rightarrow HO^{\cdot} + {}^{\cdot}O^{\cdot} \qquad \text{Ramificación}$$
$$H_2 + {}^{\cdot}O^{\cdot} \rightarrow HO^{\cdot} + H^{\cdot} \qquad \text{Ramificación}$$
$$H_2 + OH^{\cdot} \rightarrow H_2O + H^{\cdot} \qquad \text{Propagación}$$

- Disoziazio homolitikoa metal baten gainazalean: erabiltzen diren metalak Fe, Ni, Pd eta Pt



- Disoziazio heterolitikoa metal oxido baten gainazalean:



H_2-ren erreakzio zuzenak

H_2 + Ez-metalak

- Halogenoak: F_2-rekin erreakzio oso bortitza, Cl_2-rekin txinparta baten presentziaz, Br_2 eta I_2-rekin T altutan bakarrik.
- Anfigenoak: O_2-rekin txinparta baten presentzian. S-k konkatenatzeko joera dauka (S_8) orduan soilik katalizatzaileen bitartez. Besteekin ez dauka joerarik.
- Nitrogenoideak: N_2-rekin erreaktibotasun baxua, soilik T altu eta katalizatzaileak erabiliz. Ahala ere oso erreakzio interesgarria NH_3 lortzen delako (ongarrietarako)
- 13 eta 14 taldeko elementuekin ez du erreakzionatzen.

H_2 + Metalak

Metal batzuekin T hagitz altutan erreakzionatzen du (alkalino eta lurralkalinoak). H biltegiratzeko balio du.

H_2-ren erreakzioak konposatuekin

- Metal oxidoekin: metala erauzteko T altutan
    - $CuO(s) + H_2(g) \rightarrow Cu(s) + H_2O\ (l)$
- Oxido ez-metalikoekin: CO_2-rekin konposatu organikoak sortzeko
    - $CO_2 + H_2 \rightarrow$ *metanola, alkoholak,...*

H_2-ren erreaktibotasuna ur disoluzioan

Egoera estandarrean $\varepsilon^0_{H+/H2} = 0{,}00V$ (25ºC, IM, 1atm,...)

Egoera estandarretatik kanpo potentziala Nernst-en ekuazioaren bidez

$$\varepsilon = \varepsilon^o + 0{,}059\log[H^+] \Rightarrow \varepsilon = \varepsilon^o - 0{,}059pH$$

Ondorioz, pH ↑ → Ahalmen erreduktorea ↑

$\varepsilon^0<0$ duten metalekin oxidatzaile bezala jokatzen du

$$Zn + 2H^+ \rightarrow Zn^{2+} + H_2\ \varepsilon^0 = 0{,}76V$$

Hidrogenoaren konposatuak

Halogenuroak

- Ezaugarriak:
    - Lotura indar sendoak: lotura kobalente eta orbital atomikoen gainezarpen efektibotasun oso handia



Hidruro kobalenteak

- Geometria:
    - 14. taldekoak tetragonalak.

    - 15. taldekoak piramidal trigonalak.
    - 16. taldekoak angeluarrak.
- NH_3-k H lotura bakarra sor dezake. H_2O-k bi eta HF-k bakarra (eragozpen elektronikoen ondorioz)

Hidruro metalikoak

- Hidruro metaliko ionikoak
    - Alkalino eta lurralkalinoekin. (Be izan ezik)
    - Solido gogor eta hauskorrak. Ez daude naturan.
    - H biltegiak bezala erabiltzen dira.
    - Erreduktore oso sendoak
        - $NaH + X \rightarrow H_2 + NaX \quad \varepsilon^0_{H2/H-} = -2{,}25V$
- Hidruro ioniko intersekzialak
    - Egitura ez estekiometrikoa ($TiH_{1,9}$)
    - Solido gogor eta hauskorrak.
    - Distira metalikoa.
    - Eroale edo erdieroaleak.

Hidruro metalikoak oso erreaktiboak dira uretan H^- oso erreduktore ona da eta OH^- edo H_2 bihurtzen da.

Erabilpenak:

- H biltegiak.
- Bateriak.
- Zeramikan.
- Desprotonatzaile moduan.
- Substantzia organiko eta gal nobleen lehortzaile moduan.
- Beste hidruroak prestatzeko.

Zazpigarren gaia: OXIGENOA

Oxigenoak hiru alotropo dauka, O atomikoa, O_2 eta O_3

Naturan modu elementalean **O_2 eta O_3** moduan aurki daiteke **bai eta molekulak osatzen** (H_2O, SiO_2,...)

Likido moduan urdin argia da eta solidoan guztiz urdina.

Oxigenoaren forma alotropikoak

O_2 eta $_{O3}$-ren orokortasunak

O_2

Disoziazio energia oso altua → lotura bikoitz oso sendoa orbital atomikoen gainezarmen efikazia handiarengatik.

Tamaina txikia duenez eta apolarra izateagatik **Van Der Waals indar ahulak** → Gasa giro tenperaturan.

Uretan disolbagarritasuna tenperaturarekiko aurkako proportzionala: **T↑ →s↓**

Dierradikalarioa da: •O=O•

Balentzia loturaren teoriaren (BLT) arabera:

	2s	2px	2py	2pz
O_1	↑ ↓	↑ ↓	↑	↑
O_2	↑ ↓	↑ ↓	↑	↑



Teoria honek ez du azaltzen praktikan ikus daiteken paramagnetismoa. Horretarako Orbital Molekularren teoria erabili zen.



Lotura ordena = (OM lotz. e^- +OM antilotz. e^-)/2

L.O = (8-4)/2 = 2

Dierradikalarioa izateak hemoglobinari itxekitzeko ahalmena ematen dio eta sortutako lotura ahula denez lotu eta aska daiteke



Txinparta baten presentzian e^- baten espina alda daiteke eta kitzikatu egiten da

	π^*	π^*
Oinarrizko egoera	↑	↑
Kitzikatuta (akoplatuta)	↓ ↑	
Kitzitakuta (parekatuta)	↑	↓

Horrela **lotura energia jaitsi, lotura distantzia igo eta erreaktiboagoa** bihurtzen da.

O_3



	sp^2	sp^2	sp^2	pz
O1	↑ ↓	↑ ↓	↑	↑
O2	↑	↑	↑	↑
O3	↑ ↓	↑ ↓	↑	↑ ↓



O_2 eta O_3-ren lorbidea

Modu naturalean

- O_2-ren bi iturri:
  - Modu Abiotikoa: $CO_2 \rightarrow CO + ½\ O_2$
  - Modu Biotikoa: $6CO_2 + 6H_2O \rightarrow C_6H_{12}O_6 + 6O_2$
- O_3-ren lorbidea:
  - $3O_2 \rightarrow 2O_3$ **Izpi Ultramoreen presentzian**

Laborategi mailan

- O_2 lortzeko hainbat modu:
  - Uraren elektrolisia: $H_2O \rightarrow ½\ O_2 + H_2$ **Elektrizitatea**
  - Ur oxigenatuaren deskonposaketa: $2H_2O_2 \rightarrow 2H_2O + O_2$ **Katalizatzaileak**
  - Kloratoak termikoki deskonposatuz: $2KClO_3 \rightarrow 2KCl + 3O_2$ **Tº altuak**
- O_3:
  - $3O_2 \rightarrow 2O_3$ **P eta T altuak + korronte elektrikoa**

Industria mailan

- O_2
  - Airearen likufakzioa eta distilazio zatikatua
- O_3
  - $3O_2 \rightarrow 2O_3$ **P eta T altuak + korronte elektrikoa**
  - O_2-tik abiatuz distilazioa.

O_2-ren erabilerak

- Gas egoeran
  - Altzairugintzan (C+Fe) errekuntzaren kalitatea kontrolatzeko.
  - HNO_3 eta H_2SO_4 sintetizatzeko
- Likido egoeran
  - Espaziontzien erregai bezela
  - Ospitaletan arnas arazoak badaude
  - Urpekarikintzan

O_3-ren erabilierak

- Bakterizida bezala
- Oxidatzaile oso sendoa

Dioxigenoa

Erreakzio zuzenak

- Alkalino eta Lurralkalinoekin T baxutan:
  - $4Na + O_2 \rightarrow 2Na_2O$
  - $2Mg + O_2 \rightarrow 2MgO$ **Aktibazio energia txiki bat**
- Tenperatura altutan elementu gehienekin (gas noble eta metal geldoekin ez) oxidoak sortzeko.

Ur disoluzioan

Oxidatzaile sendoa bereziki ingurune azidoan

ingurune azidoa: $O_2 + 4H^+ + 4e^- \rightarrow 2H_2O$ $\varepsilon^0 = 1{,}229V$

Ingurune basikoa: $O_2 + 2H_2O + 4e^- \rightarrow 4OH^-$ $\varepsilon^0 = 0{,}401V$

Ahala ere, ozonoa oxidatzaile oraindik hobea da. Izatez, bigarren oxidatzaile onena F_2-ren atzetik.

Metalekin konplexuak sor ditzazke. Adib: Hemoglobina

Oxigenoaren konposatuak

Orokorrean O^+ espeziea ez da sortzen. Soilik F-rekin

$O + e^- \rightarrow O^{1-}$ $\Delta H << 0$ Baino peroxidoak ez dira egonkorrak

$O^{1-} + e^- \rightarrow O^{2-}$ $\Delta H >> 0$ Baino sortzen diren oxidoak oso sendoak dira

Endotermikoa izan arren oxigenoari konpensatzen dio O^{2-} eratzea askoz egonkorragoa delako.

Oxido ioniko/basikoak

Katioien ahalmen polarizatzailea txikia

$BaO(s) + H_2O \rightarrow O^{2-}(aq) + Ba^{2+}(aq)$

$O^{2-} + H_2O \rightarrow 2OH^-$ O^{2-} espeziea ez da egonkorra uretan ez delako oso polarizagarria ($P=Q^-xr^-$)

$\rightarrow BaO(s) + H_2O \rightarrow Ba(OH)_2(aq)$

$BaO + 2HCl \rightarrow BaCl_2 + H_2O$

$BaO + NaOH \rightarrow X$

Oxido kobalenteak/azidoak

Ahalmen polarizatzaile altuko "katioiekin" $O^{II-}=\underline{C}^{IV+}=O^{II-}$

$CO_2 + H_2O \rightarrow H_2CO_3 \leftrightarrow HCO_3^- + H^+$

$CO_2 + H^+ \rightarrow X$

$CO_2 + 2NaOH \rightarrow Na_2CO_3 + H_2O$

Oxido anfoteroak

erdibideko ahalmen polarizatzaileko katioiekin. Batzutan azido bezala jokatzen dute, bestetan base bezala. H^+ eta OH^--ekin erreakzionatzen dute. Adib: Mn_2O_3

Pista: Orokorrean oxido basiko/azido/anfoteroa oxidazio zenbakiarekin bat dator

Oxidazio zenbakia	Oxido mota	$+ H^+$	$+ OH^-$
+1, +2	basikoa	OK	X
+3	anfoteroa	OK	OK
+4, +5, +6, +7	azidoa	X	OK

Oxido neutroak

pH-an ez dute eraginik. Adib: H_2O

H_2O

Lotura energia oso altua atomo oso txikien orbital atomikoen gainezarpen efikazia handia**, oso egonkorra.**

Sortzen dituen **bi H loturei** esker **fusio eta irakite puntu oso altuak.**

Autoionizazio ahalmena: $H_2O \rightarrow H^+ + OH^-$ → Azido/base erreakzioen parte.

Azido/base sendotasunaren erreferentzia da (pH).

Erredox ezaugarriak

Oxidatzaile bezala jokatzen duenean espezie oxidatzailea protoia da, H_2 osatuz:	
	$[H^+] = 1 \rightarrow \varepsilon = 0{,}00$ V
$H^+ + 1e^- \rightarrow 1/2H_2$	$[H^+] = 10^{-7} \rightarrow \varepsilon = -0{,}41$ V
	$[H^+] = 10^{-14} \rightarrow \varepsilon = -0{,}83$ V

Erreduktore bezala jokatzen duenean oxigenoa osatzen da:	
	$[H^+] = 1 \rightarrow \varepsilon = 1{,}229$ V
$H_2O \rightarrow 1/2O_2 + 2H^+ + 2e^-$	$[H^+] = 10^{-7} \rightarrow \varepsilon = 0{,}83$ V
	$[H^+] = 10^{-14} \rightarrow \varepsilon = 0{,}401$ V

Ahalmen oxidatzailea >> Ahalmen erreduktorea

Erreduktorea soilik F_2 eta Cl_2-ren aurrean.

Bero espezifiko oso altua H loturei esker. Berotzean asko kostatzen zaio T galtzea. **Termoerregulatzailea** da.

Disolbatzaile unibertsala: ioiak hidratatzen ditu lotura polarrei esker.

Kristalizazio urak: solido bat uretan disolbatu ondoren ura kentzen bazaio hauspeatzen den solidoak H loturak egin ditzazke urarekin.

Koordinazio ura: ur molekulak metalei koordinatzen ahal zaie.

❑Kristalizazio urak



❑Koordinazio urak



Peroxidoak



Oxigenoan sp^3 hibridazioa.

Ez dira egonkorrak O^{1-} delako eta O-O lotura bakarra daukalako.

Desproportzioa sufritzen du:

$2H_2O_2 \rightarrow 2H_2O + O_2$



Desproportzioa katalizatzailek azkartu dezakete adib: Fe. Horrengatik zauri bateri botatzerakoan hemoglobinaren Fe-rekin erreakzionatu eta aparra ateratzen da.

Erredox ezaugarriak dauzka: oxidatzaile sendoa da.

Erabilerak: desinfektatu, hortzak zuritzeko,... Oxidatzaileen ohiko erabilerak

8. Gaia: 17. TALDEKO ELEMENTUAK, HALOGENOAK

2. periodoko elementuek ez dauzkate d orbitalik. Honek eraginak izango ditu beren kimikan.

Alotropoak

F_2: Gas horixka, korrosiboa, usain sarkorra.

Cl_2: Gas hori-berdea, usain sakona, narrigarria.

Br_2: Likido gorri iluna, bapore pozoitsuak.

I_2: Solido beltz distiratsua.

At: Solido gris zilartsua, erradioaktiboa.

F-F esperotakoa abino askoz lotura ahulagoa da eragozpen elektrostatiko oso handiak dituelako.



F_2-ren OM diagrama



Lotura ordena = (8 - 4)/2 = 1

F_2 diamagnetikoa da.

Egoera naturala

Ez dira egoera elementalean aurkitzen: oso erreaktiboak dira.

Naturan:

- Itsasoan haluro moduan.
- Mineraletan: Fluorita (CaF_2), Kriolita, Silbina (KCl),...

Iodoa da bakarra mineral batzutan Oxidazio zenbaki positiboa izan dezakeena.

Lorbidea industria mailan

3 iturri nagusi:

- Kuba elektrolitikoa.
- Oxidatzaile sendoago bat erabiliz.
- Beste metodo batzuk.

F_2 eta Cl_2

Bakarrik kuba elektrolitikoan. Ezin da H_2O erabili lehertuko zelako. H_2 eta F_2 ongi banatu behar dira ez lehertzeko. Cl_2-ren kasuan ura bai erabiltzen ahal da ez delako hain errez lehertzen.

- $2HF\ (l) \rightarrow F_2\ (g) + H_2\ (g)$
- $2HCl\ (l) \rightarrow Cl_2\ (g) + H_2\ (g)$

Cl_2 lortzeko F_2 oxidatzaile bezala erabil zitekeen baino gas honekin ez tratatzeko kuba erabiltzen da.

Br_2

Substantzia oxidatzaileagoak erabiltzen dira:

- $\frac{1}{2}\ Cl_2 + Br^- \rightarrow Cl^- + \frac{1}{2}\ Br_2$

I_2

Iodatoa oxidatzaile sendoagoekin nahasiaz:

- $IO_3^- + 5I^- + 6H^+ \rightarrow 3I_2 + 3H_2O$

Lorbidea laborategi mailan

F_2 EZ DA SINTETIZATZEN EZ DUGULAKO BERAREKIN TRATATU NAHI **INOIZ**

Cl_2

- $16HCl + 2KMnO_4 \rightarrow 2KCl + 2MnCl_2 + 8H_2O + 5Cl_2$

Br_2

- $2KBr\ (aq) + Cl_2\ (g) \rightarrow Br_2\ (l) + 2KCl\ (aq)$

I_2

- $2KI\ (aq) + Cl_2\ (g) \rightarrow I_2\ (s) + 2KI\ (aq)$
- $2NaI\ (aq) + MnO_2\ (s) + 2H_2SO_4 \rightarrow I_2 + Na_2SO_4\ (aq) + MnO + 2H_2O\ (l)$

Erreaktibotasuna

- F_2-k erreakzio oso borditzak elementu guztiekin O_2, N_2, He eta Ne-rekin izan ezik.
- Cl_2 ere oso erreaktiboa.
- Br_2 eta I_2 ez dira hain erreaktiboak**.**

Ez-metalekin

Metalekin

- Alkalino eta lurralkalinoak: EN desberdintasun oso handia, erreakzio oso bortitzak.
  - $2Na + Cl_2 \rightarrow 2NaCl$
- Trantsizio metalak: ez hain bortitzak, EN desberdintasuna txikiagoa da.
  - $Cu + Cl_2 \rightarrow CuCl_2$
- Metal geldoekin: Al-ekin soilik F-k erreakzionatzen du.

- $Al + 3/2F \rightarrow AlF_3$
- Beste konposatuekin:
  - $H_2O + F_2 \rightarrow$ *Leherketa!!* $(2HF + ½\ O_2)$
  - $H_2O + Cl_2 \rightarrow HCl + HClO$ *(ez da leherkorra baino ez fiatu sobera)*
- Ur disoluzioan:
  - Ahalmen oxidatzailea taldean gora handitzen da
  - Disolbagarritasuna
    - F_2 ez da disolbatzen, eraldatu egiten da.
    - Cl_2-k desproportzioa jasaten du.
    - Br_2 oso gutxi disolbatzen da eta I_2 oraindik gutxiago.

Erabilerak

- Fluorra: hortzoreetan txantxarraren aurka.
- Kloroa: papera zuritzeko, lixiba,...
- Bromoa: desataskante moduan, hodietatik Pb kendu.
- Iodoa: zauriak desinfektatzeko.

Halogenoen konposatuak

Afinitate elektroniko, elektronegatibotasun, ionizazio potentzial oso altuak → Haluroak sortuko dira.

Hidrogeno haluroak

HF	Azido ahula
HCl	Azido sendoa
HBr	Azido sendoa
HI	Azido sendoa



HF azido ahula da F-H lotura oso sendoa delako.

- **HF-ren orbital molekularren diagrama:**



F da hain elektronegatiboa non bere 2s eta 2p H-ren 1s baino beherago dagoen. F-ren ΔE txikiagoa denez, elektroiak F-tik gertuago daude.

- **Lorpena:**

Sintesi zuezena soilik HI eta HBr-ren kasuan. Besteetan sobera bortitzak.

Sintesi ez zuzena erreakzio mantsoagoak dira baino katalizatzaileekin posiblea

- **Erreaktibotasuna:**
    - Metalekin ez da erreaktiboa gas egoeran
    - Ez metalekin:
        - 17. taldea: EN handiagoko halogenoak erreduzitu

          $2HBr + Cl_2 \rightarrow 2HCl + Br_2$
        - 16. taldea: HI-k O_2 erreduzitzen ahal du.
    - Ur disoluzioan:

Oso disolbagarriak dira. HF ezik azido sendoak dira batez ere HI, I^- hidratazioz asko egonkortzen delako.

$HX\ (aq) \rightarrow H^+ + X^-$

Anioiak Lewis base bezala joka dezakete elektroiak emanez eta koordinazio konplexuak osatuz.

Erredox ahalmen erreduktorea taldean behera handitzen doa baina orokorrean erreduktore nahiko ahulak dira.

- **Erabilerak:**

HF: beira garbitu eta grabatu.

HCl: petroelo putzuetako Karbonatoak desegiteko.

HBr: Pigmentuak egiteko (Bromoantrakinona: pigmentu urdina).

HI: kimika organikoan, talde aterakor oso ona SN2 erreakziotan.

Haluro ionikoak, kobalenteak eta erdibidekoak

- **Ioniko puruak:**

NaF, KF,... NaCl, CsCl eta MgF_2-ren egiturak ezagutzen ditugu

ΔP txikiko katioiak → r ↑ → ΔP ↓

- **Kobalente puruak:**

Ezmetalak + edozein halogeno. Molekulak osatzen dituzte. Egoera fisikoa tamainaren arabera. Disolbagarriak disolbatzaile apolarretan.

- **Erdibidekoak:**

  Metal polarizatzaileak: Li, Be, Mg

  Anioi polarizagarriak: I, Br

Haluroen ezaugarri eta erabilerak

$\Delta\chi \downarrow \rightarrow T_{fus} \downarrow \rightarrow$ Lotura kobalenteagoa

$r_{anioi} \uparrow$, polarizagarritasuna $\uparrow$, $T_{fus} \downarrow \rightarrow$ Lotura kobalenteagoa.

Oxidazio zenbakia $\uparrow$, $\Delta P \uparrow$, $T_{fus} \downarrow \rightarrow$ Lotura kobalenteagoa.

Elikagai industrian: NaCl, KCl, $MgCl_2$

Argi ultrapotenteak: haluro metalikoz egindako fokoak (Futbol estadioetan,...).

Errepideak ez izozteko: $MgCl_2$

Haluro konplexuak

$[CoCl_4]^{2-}$, $[FeF6]^{3-}$,... Sakonki ikusiko dira 13. GAIAN

~~Konposatu interhalogenatuak~~

ICl, BrCl,... Halogeno + Halogeno

EZ DIRA AZTERKETAN SARTZEN

Oxigenoaren haluroak edo halogenoen oxidoak

Ezegonkorrak dira → Bi elementu oso elektronegatibo juntatzea ez da ideia ona

- **Fluor:**

OF_2 OSO ARRISKUTSUA

- **Kloro:**

$ClO_2 \rightarrow 1x7 + 2x8 = 19e^- \rightarrow$ paramagnetikoa

Ez da hain arriskutsua lotura bikoitzengatik



Lorpena: $2HCO_3 + SO_2 \rightarrow 2ClO_2 + H_2SO_4$

Oxidatzaile "sendoa" $\varepsilon^0 = 0{,}95V$

Erabilera: ura desinfektatzeko ez delako sobera oxidatzailea arriskutsua izan dadin. "*Sendoa pero no mucho".*

Ezin da garraiatu deskonposatzen delako. In-situ prestatu behar da.

- **<u>Bromoa:</u>**

Ezin dira lortu. Oso desegonkorrak eta leherkorrak

- **<u>Iodoa:</u>**

I_2O_5 nahiko egonkorra I ez delako hain elektronegatiboa.

CO-ren kutsadura mailak kuantizatzeko.

Oxoazidoak

$HClO_4$ isolatu ahal izan den bakarra. Besteak urik gabe desegonkorrak dira.

Oso oxidatzaile sendoak eta are gehiago ingurune azidoan.

- **<u>HXO egitura:</u>**

Azido ahulak baino oxidatzaile sendoak $\varepsilon^0_{Azid.} \approx 1.5V$, $\varepsilon^0_{Base} \approx 0.70V$

Desproportzioa jasaten dute gehienbat ingurune basikoan

Adibidez: HClO → lixiba

$HClO + NH_3 \rightarrow NH_2Cl + H_2O$ Oso toxikoa, ez nahasi inoiz lejia amoniakoarekin.

- **<u>HXO_2 egitura:</u>**

Ezagutzen den bakarra $HClO_2$

Erabilpena: $NaClO_2$ sortu ClO_2 sintetizatzeko.

- **<u>HXO_3 egitura:</u>**

Azido sendo eta oxidatzaile sendoak.

ClO_3^- poxpoluak egiteko.

- **<u>HXO_4 egitura:</u>**

Isolatzea lortu den bakarra $HClO_4$

Oso oxidatzailea → su hartzen du materia organikoaren presentzian.

Oso azido sendoa

Erabilerak:

Aleazioak disolbatu, suziriak, deshidratazioa,...

Kasu! Modu lehergarrian joka dezake.

Beti Cl-ren oxoazidoak dauzkate erabilera gehienak

Oxogatzak egonkorragoak dira.



HClO-n Cl-k $3e^-$ bikoteez lotzaile oxidatzeko prest

$HClO_4$-n Cl-k ez dauka e^- bikote ez lotzailerik :(, oxidatzeko zailagoa.

Bederatzigarren gaia: 16. TALDEKO ELEMENTUAK

O-ren afinitate elektronikoa oso txikia da hain txikia denez beste e^- bat ez du hartu nahiko.

Alotropoak, egoera elementala

O_2: gasa

S_8: solido horia

Se, Te, Po metal itxura (Po erradioaktibo eta hegaskorra)

Berezitasun printzipioa: Taldeko buruak berezitasun kimikoak dauzkate. Nahiago dute lotura bikoitzak egin konkatenatu beharrean.

O_2

Oso txikia eta oso elektronegatiboa

<u>Konkatenatzeko joera:</u>

O = O orbital atomikoen gainezarmen efikazia oso handia

O - O gainezarmen kaskarra aldarapen elektroestatiko oso handiengatik.

S

Egoera elementalean S_8 egitura → T ↑ , kateak luzeagoak Adib: T =25 → S_8, T =200 → S_{10000}



Likidotzean kateak berriro laburtzen dira eta gas egoeran S_2.

Polimorfo asko dauzka, kristalizatzeko modu asko.

Alotropo egonkor bakarra S_8 da, besteak metaegonkorrak dira, denborarekin S_8ra bihurtuko dira termodinamikoki ez direlako egonkorrak, baino prozesuaren zinetikak galarazten du.

Se

3 alotropo: gorria, grisa (egonkorrena) eta beltza. Kate desberdinak osatzen dituzte.

Grisa: kate helikoidalak gelaxka hexagonalekoak. Erdieroale fotosensiblea

Gorria: 3 polimorfo (α,□,ɣ) ez da eroalea. Se_8 eraztunez osatua. Metaegonkorra

Beltza: amorfoa, eraztun polimeriko handiak elkargurutzatuak. Erdieroale fotosensiblea



Se grixa



Se gorria

Se beltza

Te

Alotropo bakarra Se grixaren antzekoa; kate helikoidalak gelaxka hexagonaletan.

Po



Gelaxka kubiko sinplea, 4. gaian landu genuen.

Egoera naturala eta lorbidea

- S egoera estandarrean (S_8) eta konposatuak osatuz
    - $BaSO_4$, FeS, Erregai fosilak: H_2S, SO_2...
- Se konposatuak osatzen ezpurutasun bezala (Cu, Ni, Pb).
- Te ezpurutasun bezala. Adib: Urre telururoa $AuTe_3$.
- Po munduko elementu urrienetarikoa da.

Lorbidea industria mailan

S



Frasch prozesua: lurrazpiko biltegietako S elementaletik.

Aire konprimitua eta ur beroa erabiltzen da.

Claus prozesua: H_2S-tik abiatuz. etekin eta purutasun altua.

Etapa termikoa: $2H_2S + 3O_2 \rightarrow 2SO_2 + 2H_2O$ T altua

Etapa katalitikoa$2H_2S + SO_2 \rightarrow 3S(s) + 2H_2O$ Katalizatzailea: Bauxita

Laburpena: $2H_2S + O_2 \rightarrow 2S(s) + H_2O$ ΔH= -48,8 kJxmol^{-1}

Pirita erabiliz: $FeS_2 \rightarrow S(s) + FeS$ Beroa eta O_2 gabeko ingurunea

Se

CuS-ren ezpurutasun bezala

Te

Calaveritatik, $AuTe_3$

Po

Uranio meategietan

Erreakzio zuzenak: S-ren kasua

Nahiko erreaktiboa da

- Metalekin:
  - Oso elektropositiboak: $2Na + S \rightarrow Na_2S$ Kolpe bat emanez gero
  - Ez oso elektropositiboak: $Zn + S \rightarrow Zn_nS_m$ Txispa abt emanez
- Ez-metalekin:
  - $S(g) + H_2 \rightarrow SH_2$ T > 600ºC
  - $S(g) + F_2 \rightarrow SF_2, S_2F_2, SF_4,...$ Giro tenperatura (Ez dugu landuko)
  - $S(g) + Cl_2 \rightarrow SCl_2, S_2Cl_2, SCl_4,...$ Giro tenperatura (Ez dugu landuko)
  - $S(g) + O_2 \rightarrow SO_2$ T altuak

Erreakzioak ur-ingurunean: S-ren kasua

S ez da batere ongi disolbatzen

Ingurune basikoan erreduktore ona

Ingurune azidoan oxidatziale nahiko ona

Azido oxidatzaileek erasotzen dute:

- $2S + H_2SO_4 \rightarrow 3SO_2 + H_2O$
- $S + 6HNO_3 \rightarrow H_2SO_4 + 6NO_2 + 2H_2O$
- $S + 6NaOH \rightarrow Na_2SO_3 + 2Na_2S + 3H_2O$ INGURUNE BASIKOAN DESPROPORTZIOA!!

Erabilerak

- S: H_2SO_4 sintetizatzeko
- Se: Fotoeroalea → Eguzki-panelak, argazkilaritza,...
- Te: eguzki paneletan, katalizatzaile moduan,...
- Po: neutroi iturria.

Ioiak

Afinitate elektoniko altua: anioiak sortu

EN altua, oxidazio zenbaki negatiboak nahiago. Po-ren kasuan positiboak bai.

Ionizazio otentzial oso altuak, katioiak sortzeko zailtasunak.

S^{2-}, Te^{2-}, Se^{2-} ez dira egonkorrak ur ingurunean

- $S^{2-} + H_2O \rightarrow HS^- + OH^-$
- $HS^- + H_2O \rightarrow H_2S + OH^-$

Konposatu bitarrak

- Metalekin:
    - naturalak → Pirita (FeS_2)
    - Sintetikoak (BaS)
- Ez-metalekin:

Hidrogeno kalkogenuroak

	H_2O	**H_2S**	H_2Se	H_2Te
IUPAC Izena	Oxidano	**Sulfano**	Secano	Telano
Egoera Giro Tª	Likidoa	**Gas kiratsua**	Gas kiratsua	Gas kiratsua
Arriskuak			Sukoia	
Toxizidadea	-	**Toxikoa**	Toxikoa	Toxikoa
Geometria	Angeluarra	**Angeluarra**	Angeluarra	Angeluarra
H-X Lotura luzera (Å)	0,96	**1,34**	1,46	1,69
H-X-H Lotura angelua (°)	104,5	**92,1**	91	90
H-X lotura indarra (KJ/mol)	464	**366**	276	238
Fusio Tª(°C)	0,0	**- 85,6**	- 65,7	- 51
Irakite Tª(°C)	100,0	**- 60,3**	- 41,3	>0 Deskonp
pK_{a1}	14	**6,89**	3,89	2,64
pK_{a2}		**14,15**	≈ 11	10,80

Denak gasak. Sakonki aztertuko dugun bakarra H_2S

<u>H_2S:</u>

Oso toxikoa, naturako gas toxikoena

Naturan oso ugaria: Sufre meategietan, sumendietan, zelulen barruan (kopuru txikia),...

Laborategian sintesia: $FeS + 2HCl \rightarrow FeCl_2 + H_2S$ Orokorrean ez dugu sortu nahi, baizik eta suntsitu!!

Erabilerak:

Ur astuna ur arruntetik banatzeko $D_2S + H_2O \rightleftarrows D_2O + H_2S$

Erreaktibotasuna

$2H_2S + O_2 \rightarrow 2S + H_2O$

$2H_2S + 3O_2 \rightarrow 2H_2O + 2O_2$

Erreaktibotasuna ur ingurunean:

ERREDOX EZAUGARRIAK

	ε° (V)
$S + 2H^+ + 2e^- \rightarrow H_2S$	+0,141
$Se + 2H^+ + 2e^- \rightarrow H_2Se$	-0,36
$Te + 2H^+ + 2e^- \rightarrow H_2Te$	-0,69
$P + 2H^+ + 2e^- \rightarrow H_2Po$	-1,00

Ahalmen Erreduktorea ↓

AZIDO-BASE EZAUGARRIAK

	K1	K2
H_2S	$9,1 \times 10^{-8}$	$1,2 \times 10^{-15}$
H_2Se	$1,9 \times 10^{-4}$	
H_2Te	$2,3 \times 10^{-3}$	
H_2Po		

Indar azidoa ↓

Kalkogeno oxidoak:

- Kalkogeno oxidoak

SO_2

- Ekoizpena:
  - Sumendietan: $S + O_2\,(g) \rightarrow SO_2\,(g)$ T altutan
  - Laborategian: $SO_3^{2-} + 2H^+ \rightarrow SO_2 + H_2O$
  - Industria mailan: diesel motoreak, gas naturala,...
- Erreaktibotasuna:
  - $SO_2\,(g) + ½\,O_2\,(g) \rightarrow SO_3\,(g)$

- $SO_3 + H_2O \rightarrow H_2SO_4$ Euri azidoa sortzen dute!!
- $CaCO_3 + SO_2 \rightarrow CaSO_4 + CO_2$ Industria mailan kontzentrazioa murrizteko.



- Erabilpenak:
  - Elikagai industrian antioxidatzaile bezala.

SO_3

- Ekoizpena:
  - Naturan: $SO_2\,(g) + ½\,O_2\,(g) \rightarrow SO_3\,(g)$
- Erreaktibotasuna:
  - $SO_3 + H_2O \rightarrow H_2SO_4$ Euri azidoaren erantzuleetako bat!!
- Erabilerak:
  - Azido sulfurikoa sintetizatzeko.
  - Dekoloratzaile moduan





Oxoazidoak

Sufreak asko sortzen ditu:

- Sinpleak: H_2SO_3, H_2SO_4, $H_2S_2O_3$
- Konplexuagoak: $H_2S_2O_7$, H_2SO_5,...

Hemen sartu Keepeko nota Tiosulfatoarena in ondoren!!



SO_4^{2-}: Lotura Kop. =12/2 = 6 → Lotura ordena = 6/4 = 1,5 (1**σ** + 0,5**π**)



SO_3^{2-}: Lotura Kop. = 10/2 = 5

H_2SO_4

Munduan gehien ekoizten den subs. inorganikoa. Aberastasuna baloratzeko irizpidea, H_2SO_4 sorketa ↑, aberastasuna ↑

Urarekin disolbatze beroa sulfurikotan oso altua, oso arriskutsua (beti bota sulfurikoa uretan, ez alderantziz).

Azidotasun altuko substantzia: $H_2SO_4 \rightarrow HSO_4^- + H^+$ $HSO_4^- \rightarrow SO_4^- + H^+$

✓Azido oxidatzaile vs Ez oxidatzaile

$SO_4^{2-} + H_2O + 2e^- \rightarrow SO_3^{2-} + 2OH^-$ $\varepsilon^o = -0{,}94$ V

$2\,SO_4^{2-} + 4H^+ + 2e^- \rightarrow SO_2 + 2\,H_2O\,(l)$ $\varepsilon^o = 0{,}16$ V

- Kontzentratua dagoenean: Azido Oxidatzailea:

  $Cu + 2\,H_2SO_4 \rightarrow CuSO_4 + SO_2 + 2\,H_2O$ $\varepsilon^o_{Cu(II)/Cu} = 0{,}34$ V

- Diluitua dagoenean: Azido ez Oxidatzailea

